

tzaindiak. Idazki orien erantzupen-lana Lakonbe jaun berari egotzi zaio.

11. Belaustegigoitia'tar Perderika jaunak idatzi duen *Lutelestia* aztertzeke bi euskaltzain: Altube ta Eguskitza, Euskaltzaindiak aukeratu ditu.

12. Dañikarere-urgazlearen eskutitza irakuri da Euskaltzaindiari eskerak azalduaz.

13. Maipuru jaunak *Txukunkeriak* izentzat dakaren bere txosten bat irakuri du: Aita Soloeta-Dimaren lana gai-bide. Ta beste gai batzuek bigaramonerrako utzita, oiturazko otoitzez, batzaraldi au amaitu da.

Donosti'n, Gipuzkoa'ko Aldundi-Jauregian, 1922' ko Azaroa'ren 28'an.

Eleizalde euskaltzañaren osasun opazko meza entzun da.

Azkue jauna maipuru dala, aurreko agirian izendatzen diran euskaltzain berak datoz eta urgazletatik Nazario Oleaga jauna.

1. Azkue jaunak Euskal-atzizki lan edera luzaroan irakuri du.

2. Napafoa'ko Aldundiari idatzi bear zaio: orain berak mendi ta baso zain jafi nai dituen *mikeletiak*, euskaldunak al izatez, izan ditezela.

Ta beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da batzaraldi au.
